



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
*Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
*Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria*

**EBAZPENA, 2021eko abenduaren 14koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2021-2022 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka eskaeren ebazpen-proposamena ematen du.**

Hezkuntza sailburuak, 2021eko ekainaren 22ko aginduaren bitartez (2021eko uztailaren 16ko EHAA), Ikasiker lankidetzak beken deialdia egin zuen, 2021-2022 ikasturteko unibertsitate ikasleentzat.

Agindu horren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, aurkeztutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengo.-** Jakinarazi, 2021-2022 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak, II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak eta III. eranskinean ordezkoen zerrenda proposamena osatzen dutenak.

**Bigarren.-** 10 egun balioduneko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 14a.

Miren Artaraz Miñón  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria